

# ZUHAITZ EGUNA

## AHOLKUAK: NOLA ALDATU ZUHAITZ BAT

### Urrezko araua:

Zuhaitz bat erosi aurretik, jakin behar da zein tamaina hartuko duen erabat garatuta dagoenean. Bestalde, kalkulatu behar da zein itzal emango duen hazten denean eta zenbat urte biziko den ere jakin behar da.



**1** Etxe ondoan zuhaitz txikiak landatu. Hegoaldeko fatxadan, hosto galkorrak dituztenak aldatu (udan eguzkitik babesteko eta neguan itzal gehiegi ez emateko). Itxitura edo pantaila bat lortu nahi bada, urte osoan hosto berdeak izango dituen zuhaitza aukeratu.

**2** Lorontzietan urte osoan alda daitezke zuhaitzak, izozten duenean izan ezik. Sustraiak ondo bota dituela ziurtatu behar da.

**3** Lorategian-eta, zuloak egin behar dira landatu baino hilabete lehenago (zabaleran eta sakoneran sustraiak baino 10 cm gehiago ireki). Euria egin ondoren egunetan zulotik ura ez bada desagertzen, seinale ez duela ondo drainatzen. Beraz, ttonktor baten gainean aldatu.

**4** Saiatu zuhaitzaren lepoa ez lurperatzen. Bete zuloa lurrez, ongarritu eta beldurrik gabe ureztatu.

**5** Sartu makila bat zuloan, haizeak jotzen duen aldean, zuhaitza tente egon dadin. Enborrari kalterik ez egiteko, bildu apar-gomarekin edo oihal batekin eta handitzen doan heinean joan soka elastikoa laxatzen.

**6** Eite handiko zuhaitza aukeratzen bada, sartu plastikozko hodi bat (makarroia) zulo ertzean, azaletik hondoraino, sustraiak ondo ureztatu ahal izateko.

**7** Enborraren inguruan ez dadila belarririk hazi (pinu azalak erabili horretarako), zuhaitzaren hazkundera errazteko.

**8** Birlandaketetan, zuhaitzek asko sufritzen dute. Hori dela eta, lagundu daiteke sustraitzeko hormonen bidez edo izerdia galarazteko sustantzien bidez. Galdetu adituren bati.

**9** Ez eraldatu zuhaitzaren oineko lurra.

**10** Ilbehera da garairik onena birlandaketak egiteko, ongarrria botatzeko, intsektuei aurre egiteko eta fruitu gehiago lortzeko inausketa egiteko; zuhaitzari indarra emateko, berriz, ilgoran egin behar da inausketa eta egur ona lortzeko, ilargi betean.

TOLOSAKO  UDALA

Zuloaga Txiki Ingurumen Eskola

TOLOSA2015 